

Eguna hoi bezela hasi nuen, lehiotikan sartu ziren lehen eguzki izpiekin esnatu nintzen, komunera joan, adin honekin ez baigaude abentureatarako, eta igerilekurako motxila hartu nuen. Eguneko lehen kurtxiloa zen gurea, ordubete igerian egin eta aldageletako asteroko kuxkuxero momentuari ekin genion. Purik, bere semea etxetik bota ezinean jarraitzen zuela kontatu zigun eta, begetariano delako zerbaitean bihurtu nahi zuela ere, eta zer egin ez zekiela. Badirudenez, mutikoak ez zuela ez okelik ez arrainik jan nahi, animaliak zirela medio. Erabaki hori beneukan ezaguna, Ilargi ere vegeztakizer hori zelako ere, elkarrekin bazkaldu genuen azkenean. Irribarre bat eragin zidan gogoetak. Asteko berriak kontatu genizkion elkarri eta kafetegian gosaltzen hasi genuen eguna, asteartero bezala. Etxera heldu nintzenean neba ez zegoela konturatu nintzen eta egongelara sartzerakoan, nire katu Marianok, argazkiak lurrera bota zituela konturatu nintzen. Minutu batzuk aurrerago, jasotzen amaituko nuenean, lurretik jaso nuen azkeneko argazkia, Ilargi eta bion azkena zen; bere abenturara joan aurrekoa.

Gure herri txikian bizitakoa bazen ere, orain mundua haizea moduan zeharkatu duen horietakoa dela esan genezakegu. Txikia zela, gure mahasti arteko herrira zetozten urteroko tenporeroekin elkartzen zen, haien kulturetz hitz egin ziezaioten. Bazkaltzera gonbidatzen zuten askotan, beraien janari tipikoak egiteko, osagaiak lortu ahal zituztenean eta nola ez, gure Ilargik, ez zuen ezetz esaten. Denboraldiak behin bukatzen zirenean, zenbait esaldi eta elkarrizketa sinple edukitzeko gai zitzaigun, suahili, hausa edo yoruba zenekoetan. Zenbait urteetan ere, bere arabiera lantzeko aukera izan zuen eta neskatilak, bueltan, euskaraz irakasten zien haiei. Oso txikitatikan, mundua deskubritu eta ikertu nahi zuela bazekien eta beraz, aukera eduki zuen lehenengoan, ekin zion.

Nire 68 urteetan ez nuen bera bezalako pertsonarik ezagutu, hain bitxia eta hain ezberdina. Betidanik eduki zuen hizkuntzekiko zaletasun horrekin, gauza ikaragarriak egitera ailegatuko zela esaten nion beti eta Gasteizeko unibertsitatean, *Euskal Filologia* amaitu zuenean, abentura izugarri batean abiatu zen munduan zehar. Pasatu diren urte hauetan herrialde, kultura, paisai eta espedizioak bizi dituela kontatzen joan zait, zenbait argazkiekin, gmailaren bitartez. Gero, Solek, modernizatu behar naizela esaten dit, bai zera!

Gauza da, argazki horrekin bururan pasa nuela egun osoa: Ilargi txikia zeneko abenturak gogoratzen, nire etxean egindako merienda guztiak, gurasoekin afaltzera etortzen ziren udako gauak... Inoiz eduki ezin izan ditudan biloba modura sentitu ditut betidanik Ilargi eta bere neba-arrebak, eta bere amona Begok, berdina esaten zidan zetorren guztietan.

Ilargiren amona, Frantziako iparraldean bizi zen, beraz, zoritxarrez ez genuen askotan ikusten; lagunik honenak ginen eta txikitatik egon ginen elkarrekin, bere senarra izango zena, Frantzian aurkitu zuen arte. Adarretatik joan naiz berriro ere.

Argazkiaren egun hartan, gauean, merkatutik bueltatu berri ginen neba eta biok, eta bat batean, atea jo zuten. Afaria prestatzen geunden sukaldean, altxatu egin nintzen eta atea ireki egin nuen. Jainkoak ikusi egin zuen argazkien gertakaria eta bazeriduriaren opari bat bidali zidala: Ilargi zegoen nire atearen aurrean, bere irribarrearekin, bere motxila laranjarekin bizkarrean, bitxi koloretsu eta zapiekin jantzita, beti janzten zituen modukoekin.

- Neskato! Hau bai oparia! Nolatan ez gaituk abisatu zenetorrela? -esan nion harrিতuta.
- Kaixo! Sorpresa bat eman nahi nizuen eta lortu dudala iruditzen zait -erantzun zidan besarkada batekin.

Anaia etorri zitzaigun, sortutako iskanbila ikustera eta sorpresa ederra hartu zuen berak ere. Agurtu ondoren, etxera sartu ginen hirurok eta afaria prestatzen jarraitu genuen, neskak, bere guztiak kontatzen zizkigun bitartean:

- Gurasoen etxera joan naiz, baina bariduri egun pasa joan direla nonbaitera -azaldu zigun.
- Bai laztana, gaur goizean, loreetan nengoela topatu ditut ateratzen. Donostiako lagun batzuenera zihoaztela esan didate -erantzun zion nebak.

Gure etxean pasako zuen gaua eta hurrengo goizean, gosalorduan, gurasoen etxera joango zen.

Barazki batzuk egin genituen plantxan, garbantzu sopa eta entsalada pixkat, Ilargiren begetarianismoa dela medio, bere abentura guztiak kontatzen zizkigun bitartean:

- Behin filologiako karrera amaituta, dakizuen bezala, Estatu Batuetara joan nintzen lehendabizi, euskara irakasle modura. Florida, Ohio, Colorado, Utah eta California hartean pasa nintuen 10 hilabete, lanez gainezka. Lagun asko egin nituen eta horietako batzuekin, Hawaii-era joan nintzen zenbait aste oporretan... -jarraitu zuen sakon kontatzen.

Orduak egon ginen hitz egiten, hiru urte zirelako elkar ikusten ez genuela eta eguneratu beharra geneukan. Neba lotara joan zitzaigun baina gu biok, infusio eta zenbait gozokien konpainian geratu ginen berandu arte. << Ekuatoretik beheko herrialde horietan ulertu nuen amonak eta zuk beti errepikatzen zeniguten esaldia: “gutxien daukatenak,